

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 5127

*EBAZPENA, 2024ko urriaren 30ekoa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez gauzako laguntzak ematen baitira euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko.*

2024ko ekainaren 25eko EHAA (124. zk.), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzako laguntzak arautzen diren, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko, eta 2024an proiektuak aurkezteko deialdia egiten den.

Eskabideak aurkezteko epea, Aginduaren 8.1 artikulua arabera, 2024ko uztailaren 26an amaitu zen.

Aginduaren 12. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu zen, eta, eskabideak aztertu ondoren, proiektuak baloratu zituen, Aginduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kultura Ondarearen Zuzendariaren ebazpen-proposamena ikusita, eta aipatutako Aginduaren 15. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat etorrira, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren pertsonai/erakundeei gauzako laguntzak ematea, eranskin horretan zehazten diren proiektuen eta kostuen arabera.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egikarrituko ditu onetsitako proiektuak 2025ean zehar, eta dagokion kontratazioa egingo da zerbitzua emateko. Beraz, onetsitako proiektuen pertsona onuradunek ez dute jasoko inolako zenbateko ekonomikorik.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako pertsonak/erakundeek aurkeztutako eskabideak atzera jotakotzat hartzea.

Hirugarrena.– Ezestea III. eranskinean jasotako erakundeak aurkeztutako eskaera, bertan adierazten den arrazoiengatik.

Laugarrena.– Pertsona eta erakunde onuradunak gauzako laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen menpe geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Bosgarrena.– Pertsona eta erakunde interesdunei banan-banan ematea ebazpen honen berri, eta ohartaraztea ezen, laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean ez badiote espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko dela.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2024ko azaroaren 11, astelehena

**AZKEN XEDAPENA**

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 30a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2024ko azaroaren 11, astelehena

## I. ERANSKINA

## ONETSITAKO PROIEKTUAK

Eskatzailea	Espedientea	Proiektua	Guztizko puntuazioa	Proiektuaren balioa (eurotan)
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA	006-KOD-2024	Iñigo Salaberriaren ikus-entzunezko funtsa katalogatzea, digitalizatzea, kontserbatzea eta hedatzea II	48,28	8.490,89
Euskal Herriko Bertsozale Elkartea EHBE	005-KOD-2024	Bertsozale Elkartearen Argitalpen Bilduma (1988-2016)	62,58	9.553,76
Eresbil Fundazioa	002-KOD-2024	Partituras de la colección de ERESBIL pertenecientes al patrimonio cultural vasco	60,80	9.865,60
Eresbil Fundazioa	003-KOD-2024	Rollos de papel perforado pertenecientes al fondo Echevarrieta – Larrinaga	72,38	19.918,43
Galtzaundi Euskara Taldea	012-KOD-2024	Galtzaundi aldizkariaren funtsa digitalizatzea eta katalogatzea	63,60	8.662,00
Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.	010-KOD-2024	Arrasate Telebistaren ikus-entzunezko funtsa digitalizatu eta katalogatzea	80,17	15.602,00
Gerediaga (Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea)	001-KOD-2024	Alejandro Landabururen funtsaren digitalizazioa	66,07	12.390,60
Arantzazuko Frantziskotar Probintzia	004-KOD-2024	Creación de la Fonoteca del Santuario de Arantzazu: Catalogación y Digitalización	54,80	9.381,95
		Guztira		93.865,23

2024ko azaroaren 11, astelehena

## II. ERANSKINA

## ATZERA EGINDAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Donostia Kultura EEP
Espedientea	007-KOD-2024
Arrazoia	Atzera egitea

Eskatzailea	Fundación Museo de Máquina-Herramienta / Erreminta Makinaren Museo Fundazioa
Espedientea	009-KOD-2024
Arrazoia	Atzera egitea

Eskatzailea	Fundación Museo de Máquina-Herramienta / Erreminta Makinaren Museo Fundazioa
Espedientea	011-KOD-2024
Arrazoia	Atzera egitea

2024ko azaroaren 11, astelehena

## III. ERANSKINA

## EZETSITAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Idiazabalgo Udala
Espedientea	008-KOD-2024
Arrazoia	Ezetsi da, aurrekontua txikiagoa delako katalogazio- eta digitalizazio-proiektuetarako eskatzen den 5.000 euroko gutxieneko aurrekontua baino (Aginduaren 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera).